



ALKATE-DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz, ondorengo agintzea erabaki dut:

Arte Udalekuetako begiraleen onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzea eta behin betiko merezimenduak argitaratzea (2026AOPE0005)

Udal teknikariaren txostenak honela dio hitzez hitz:

“Udaleko Pertsonal eta barne-antolaketako teknikari naizen honek honako txostena eman dut:

Espediente-zk.:..... 2026AOPE0005

Espedientearen helbidea:..... OÑATI

Gaia:..... Arte Udalekuetako begiraleen onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onartzea eta behin betiko merezimenduak argitaratzea

Interesduna:..... Oñatiko Udala

Gertakariak: 2026ko martxoaren 13ko 476 alkate-dekretuaren bitartez Oñatiko Udaleko 2026ko arte udalekuetarako begiraleak kontratatzeke deialdi eta oinarriak onetsi ziren eta berauek argitaratzea erabaki.

Merezimenduen behin-behineko emaitzen aurkako erreklamazioak aztertu eta ebatzita, hurrengo erabaki du epaimahai kalifikatzaileak, alkateari proposatzeko:

Lehenengoa.- Aurkeztutako erreklamazioak erantzutea.

- a) *****4348**** hautagaiak egindako erreklamazioa onartzea eta 8,5 puntu aitortzea.
- b) *****4876**** hautagaiak egindako erreklamazioa onartzea eta 5,5 puntu aitortzea.

Bigarrena.- Behin betiko merezimenduen emaitzak eta kontrataziorako erabakia argitaratzea.

Onartutako izangaiak:

Hurrenkera	NAN	Hizkuntza-eskakizuna dauka	Behin betiko merituen puntuazioa
1.	***3309**	Egiaztatua	13
2.	***2684**	Egiaztatua	11,5
3.	***4348**	Egiaztatua	8,5
4.	***4876**	Egiaztatua	5,5
5.	***7661**	Egiaztatua	4,5
6.	***7746**	Egiaztatua	4,5
7.	***4234**	Egiaztatua	4,5
8.	***4839**	Egiaztatua	3,5



OÑATI
dabilen herria

9.	***5109**	Egiatzatua	2,5
10.	***3398**	Egiatzatua	2

Baztertutako izangaiak:

NAN	Arrazoia
***1820**	Titulaziorik ez
***3036**	Hizkuntza-eskakizunik ez

Hirugarrena.- Lehenengo 7 hautagaiak kontratatzeko proposamena Alkateari luzatzea.

Laugarrena.- Oinarrietako lehenengo puntuari jarraikiz, Udalekuak hasi aurreko 15 lan-egunetan (ekainaren 8tik aurrera) uko egiten duten hautagaiei zigorra ezartzea. Zigor horrek eragina izango du hurrengo urteetako puntuazioetan, eta penalizazio hori gehienez ere 5 puntukoa izango da.

Goiko txostenak dioena ikusirik, nik, Izaro Elorza Arreguik, Oñatiko Alkatea naizenez, legeak ematen dizkidan eskumenak erabilita, erabakitzen dut:

Lehenengoa.- Erreklamazioetarako epea amaituta, Oñatiko Udaleko 2026. urteko arte udalekuetako begiraleen behin betiko onartu eta baztertuen zerrendak eta behin betiko merezimenduak onartu eta argitaratzea.

Bigarrena.- Ebazpen hau www.oñati.eus webgunean eta Udaleko iragarki-taulan argitaratzea.

Hirugarrena.- Lehenengo 7 hautagaiak kontratatzea eta, horien artean ukorik balego, segidakoen alde egitea kontratuak, behar ahala, hurrenkera jarraituta.

Laugarrena.- Oinarrietako lehenengo puntuari jarraikiz, Udalekuak hasi aurreko 15 egunetan (ekainaren 8tik aurrera) uko egiten duten hautagaiei zigorra ezartzea. Zigor horrek eragina izango du hurrengo urteetako puntuazioetan, eta penalizazio hori gehienez ere 5 puntukoa izango da.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan dizan, hau sinatu dut,

Oñatin, 2026ko maiatzaren 15a.



Alkatea

Izaro Elorza Arregui